



BASKONIA Mendi Taldea

C/Doctor Fleming, 2, bajo/behea; 48970-Basauri

Tlfo.: **94.449.57.28**

e-mail / e-posta: baskoniamt@gmail.com

web / web gunea: www.euskalnet.net/baskonia



Teléfono de Excursiones / Ibilaldietarako telefono-zk.:

688.81.05.79



Operativo desde 1 hora antes de la salida hasta 1 hora después de la vuelta / Arreta, abiatu aurreko ordubete lehenagotik, iritsi osteko ordubete beranduagora arte

Pagos / Ordainketak: CAJA LABORAL / LABORAL KUTXA➔

ES22-3035-0207-12-2071021535



08-09 Septiembre / Irailak 08-09

“MONTAÑA PALENTINA”

Peña del Fraile 2.001 mt – Peña Redonda 1.995 mt

¡ 09 Julio / Uztailak 09 ➔ Comienzo Inscripciones / Izena emateko lehen eguna!



➤ **Guardako Cara Norte aterpe-eskolan** egingo dugu lo, gela partekatuetan, literetan. Bainugela ere, partekatua. Izarak alokatzeko aukera (3 €).

➤ **Bazkideek:** **45 €.** **Bazkide EZ direnek:** **55 €.** Mantenu-erdia.

1)-Salida de Bilbao / Irteera Bilbotik (Abando, Begoña)➔

06:30 horas

2)-Salida de San Miguel de Basauri / Irteera San Migeletik➔

06:50 horas

3)-Salida de Basauri / Irteera Basauritik (Miradoreak, Ariz)➔

07:00 horas



***NOTA:** esta documentación es orientativa y complementaria a toda aquella que cada cual debe llevar. La Organización la ha elaborado tras consultar material y fuentes diversas, *Pero Puede Contener Errores*.

***OHARRA:** argibide hauek orientagarriak besterik ez dira, norberak eraman behar duen dokumentazioaren osagarri. Antolatzaileok egin ditugu zenbait material eta iturri kontsultatu eta gero, *Baina Akatsak Izan Ditzakete*.

PEÑA DEL FRAILEta igotzea (Palentziako Mendialdea)


Virgen del Brezo santutegi ondoan aparkatu (0 km), eta haren atzealdera joango gara. Handik irteten da pista nagusiraino doan bidexka.


Pistara helduta, bertatik jarraituko dugu, **Cristo de la Sierra aterpe-baselizaraino** (2,6 km). Aterpearen parean, gure ezkerretara, suebaki txiki bat ikusiko dugu, eta, haren ondoan, beste pista bat, ibilgailuentzako hesiarekin. Bigarren horrek Peña Cuetoren oinarriaino eramango gaitu, eta, hara heldutakoan, eskuinetik jarraituko dugu, Frailetik gero eta hurbilago.

Eskuinetara daukagun suebakia pasa eta gero, ezkerretara adi eta so joango gara, hantxe aurkituko baititugu **FRAILE TONTORRERAINO** (2.001 m, 6 km) eramango gaituen malda gogorra markatzen duten mugarriak.

Bide beretik jaitsi gaitezke, edo, bestela, **BIGARREN TONTORRERAINO** jarraitu (ez da hain garaia, baina hantxe dago erpin geodesikoa). Merezi du ahalegina, Palentziako Mendialde osoaren ikuspegi paregabea handitzeko (han, urrunean, Kantauriar mendikatea).


Jaisteko, tontorren arteko mendi-lepotik abiatzen den bidea hartuko dugu. Lepoaren behealdean marka zuri-horiak aurkituko ditugu. Handik ere jaitsi ahal gara, baina, zati txiki batean, eskuen laguntza ere beharko dugu. Aukeran, hobe da metro batzuk igotzea, bidezidor errazago batetik behera doazen mugarriak ikusi arte —ekarri dugun pistara eramango gaituzte— (8,6 km). Handik aurrera, santutegira bueltatzea baino ez zaigu geratzen (13,6 km).








MAPAS PARCIALES / MAPA PARTZIALAK







6





Traspeña de la Peña - PEÑA REDONDA - San Martín de los Herreros

Ibilbide polita, Palentziako Mendialdearen alde horretan zehar. Ikuspegi paregabea, eta paisaia desberdinen arteko kontraste oso handia. Ibilbide luzea eta maldatsua. Hori kenduta, bidea eroso da.

Traspeña de la Peña herria guztiz zeharkatu eta gero (0 km), pistatik igoko gara EZKERRETARA, IPARRALDERANTZ.

Handik gutxira, jaitsi, eta *Santa Eulalia* troka zeharkatuko dugu. Pareko mendi-magaletik igotzen hasiko gara, arbola artean, markatutako xendratik (harrizko mugarriak).



Jarraian igoko gara, eskuinetara utziko dugun *Pico Burrián* (1.789 m) eta gure helmuga banatzen dituen mendi-leporaino.

Mendi-tontorrera igotzeko, berriz, EZKERRETARA doan aldapa igo beharko dugu. Oso maldatsua da, eta sigi-saga doa denbora guztian. Goian ja, 14 m inguruko metalezko gurutzea, harrizko egitura eta **ERPIN GEODESIKOA** aurkituko ditugu (1.996 m, 6,8 km).

Bueltarako, mendi-lepora jaitsiko gara berriro, eta IPAR-EKIALDERANTZ joko dugu, *Hoyones del Hijo de Yebororantz*.


Mugarriak jarraitu, eta basoan sartuko gara. Bailara txiki bat igarota, *chozo de Brañosera* hondarretara iritsiko gara.

Arroyo del Monte arroan sartuko gara. Bertatik jarraituta, helmugara iritsiko gara, **San Martín del los Herrerosera** (14,7 km).





MAPA GENERAL / MAPA OSOA





MAPAS PARCIALES / MAPA PARTZIALAK

